

# KONKURTSO LEGE BERRIA: URTEA BETE DENEAN, BALORAZIOAK EGITEKO ABAGUNEA

## 1.- UZTAILAREN 9KO 22/2003 LEGEAREN AURREKARIAK: ASPALDIKOAK ETA ARESTIKOAK

Historian barrena ibilaldi laburra eginda, zordunaren kaudimengabezia arautzen duten erakunde juridikoen lehenengo aztarna aurkitu nahi badugu, Erromako Zuzenbidera jo behar da: hasieran, betearazpen pertsonaleko prozedura aplikatzen zen (*manus iniectio*), eta horretan, hartzekodunak zorduna hil edo esklabo egiteko eskumena zuen; gerogarrenean, ondarearen gaineko exekuzioa zekarren prozedura aplikatu zen (*pignoris capio*), eta, horren ildotik, hartzekodunak zordunaren ondasunak atzeman zitzakeen, baina zorduna ordainketa egitera behartzeko bakarrik, eta ez, ordea, ondasunok zuzenean besterentzeko; besterentze-ahalmen hori bilakaeraren azken urratsa izan zen Erromako Zuzenbidean: *bonorum distractio* delako erakundearen bidez, hartzekodunek zordunaren ondasunak banaka saldu ahal zituzten, betiere kuradorearen esku-hartzearekin.

Edozein kasutan ere, betearazpen-prozedura horiek guztiak prozedura pribatuak ziren, hartzekodunak banan-banan joan zitezkeelako zordunaren ondarearen kontra, eta zordun orori

aplikatzeko modukoak. Haatik, egungo prozedura kolektiboak, hartzekodunak talde moduan hartzen dituztenak, Erdi Aroan agertu ziren lehenengoz. Merkataritzari dagokionez, Bilboko 1737ko Ordenantzek kaudimengabezia arautzeko ohiko bi erakundeak jaso zituzten, hots, porrota eta ordainketa-etendura; 1829ko Merkataritza Kodeak bost porrot mota arautu zituen (ordainketa-etendura, ezusteko kaudimengabezia, erruzkoa, maulazkoa eta ostentzea); indarreko kodeak, ostera, berriro bereizi ditu ordainketa-etendura eta porrota; eta, azken buruan, Ordainketa Etendurari buruzko 1922ko Lege berezia dugu, uztailearen 26koa, erakunde zehatz hori garatzeko.

Aurrekariak aurrekari, Konkurtso Lege berria onetsi aurretik, arau anitz hartu behar ziren kontuan enpresarioaren kaudimengabeziari aurre egiteko: batetik, arau substantiboak, hots, Merkataritza Kodeak (indarrekoa nahiz aurrekoa) eta Ordainketa Etendurari buruzko Lege berezia, kaudimengabezia behin-behinekoa (ordainketa-etendura) edo behin betikoa (porrota) izatearen arabera; eta, bestetik, prozesu-arauak, Prozedura Zibilaren Legea, hain zuzen. Horrez landara, zorduna enpresarioa izan beharrean, zordun arrunta bazen, ezin aplika zitekeen arauketa hori, zibila baik. Ildo horretatik, xedapen hauek guztiak izan behar ziren kontuan, kaudimengabezia-egoeretan:

Prozedura zibilak (zordun kaudimengabezia enpresario ez zenean aplikatu beharrekoak)

-Kode Zibila (IV. liburuaren XVII. titulua).

-Prozedura Zibilaren 1881eko Legea (II. liburuaren XII. titulua<sup>1</sup>).

Merkataritzako prozedurak (zorduna enpresario zenetan aplikatzen zirenak)

-Merkataritza Kode zaharra eta indarrekoa (porrotaren kasuan, 1829ko Kodearen IV. liburua eta 1885eko Kodearen IV. libu-

---

<sup>1</sup> Prozedura Zibilaren Lege berriak, urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak, xedapen indargabetzaile bakarrean zehaztu zuen salbuespen gisa 1881eko Legearen zenbait artikuluri eutsi behar zitzaizela (hala nola II. liburuaren XII eta XIII. tituluak), Konkurtso Legea indarrean jarri arte.

ruko I. tituluaren 2.etik 7.era arteko atalak; eta, ordainketa-etendurari dagokionez, 1885eko Kodearen IV. liburuko I. tituluaren 1. atala).

-1922ko uztailaren 26ko Legea, Ordainketa Etendurari buruzkoa.

-Prozedura Zibilaren 1881eko Legea (II. liburuaren XIII. titulua).

-Hainbat xedapen berezi, kreditu-erakunde eta erakunde aseguratzaileen esparruan, hala nola: uztailaren 29ko 26/1988 Legea, kreditu-erakundearen diziplina eta esku-hartzeari buruzkoa; abuztuaren 22ko 2020/1986 Errege Dekretua, erakunde aseguratzaileetako batzorde likidatzailearen erregelamendua onesten duena; edota azaroaren 8ko 30/1995 Legea, aseguru pribatuen antolaketa eta ikuskatzailetzaren ingurukoa.

Izugarrizko arau-nahastea, bada, arazo bakarra konpontzeko: norbaiten kaudimengabeziari aurre egitea. Horrenbestez, aspaldiko grina zen arauketa zaharkitu eta sakabanatu hori gainditzea, kaudimengabezia oro (enpresarioarena zein enpresario ez den zordunarena) lege-testu bakarrean jasota, eta Konkurtso Lege berriak grina hori ase nahi du, hain zuzen. Zioen azalpenean esaten den moduan, *lege honek Espainiako ondare-zuzenbidean aspalditik nabaritu den asmo bizia erdietsi nahi du: konkurtso-legeriaren eraldaketa*<sup>2</sup>... Eraldaketa horren bitartez, aurreko legeriaren akatsak gainditu nahi izan dira (besteak beste, arauen arkaismoa eta sakabanaketa, sistema harmonikorik ez izatea, interes zehatz batzuei lehenespena ematea interes orokorraren eta hartzekodunen arteko berdintasun-printzipioaren gainetik) Azken buruan, denbora luzea igaro ondoren izan bada ere, heldu da akatsok konpontzeko lege-irtenbidea.

Guztiarekin, tartean izan dira txalotzeko moduko prestatze-lan eta ahaleginak, eta on izango litzateke horien inguruko aipamen laburra egitea, uztailaren 9ko 22/2003 Legearen azterketa zehatza hasi baino lehen:

1959ko aurreproiektua. Ikaskuntza Politikoen Institutuak egin zuen, baina ez zen modu ofizialean argitaratu. Proiektu horre-

---

<sup>2</sup> Itzulpena autorearena da, lege-testu hau oraindik ez baita euskaratu.

tan aurrenekoz proposatu zen gai honen inguruko batasuna, alegia, testu bakarrean arautzea enpresarioen eta enpresario ez direnen konkurtso-erakundea, alde substantiboa eta prozesala batuta; hala ere, bi prozedura bereizi ziren, kaudimengabezia behin-behinekora edo behin betikoa izatearen arabera.

1978ko aurreproiektua. Kodegintzarako Batzorde Nagusiak egin zuen eta 1983an argitaratu zen. Horretan, batasun zabalagoaren alde egin zen, aurrekoaz gain, prozedura ere bakarra izatea proposatu baitzen, baina hori bai, prozedura zeharo malgua eta irtenbide desberdinen artean (hitzarmena, likidazioa edota kudeaketa kontrolatua) aukeratzea ahalbidetzen zuena.

1995eko proposamena. Berriro ere Kodegintzarako Batzorde Nagusiak egin, eta 1996an argitaratua. Lege-testu bakarrean jasotzen dira arau substantiboak eta prozesuaren ingurukoak, ez da bereizten zordunaren izaera (enpresarioa den edo ez), baina bai, ordea, kaudimengabezia-mota, eta horren arabera, bi prozedura proposatzen dira: hartzekodunen konkurtsoa (behin betiko kaudimengabezia gertatzen denerako) eta ordainketa-eten-dura (likideziarik ezaren inguruko arazoak konpontzeko).

Lege honen jatorria den 2001eko aurreproiektua. Prozedura Zibilaren 1/2000 Legeak azken xedapenetatik hementzigarrenean xedatutakoa beteta<sup>3</sup>, Gobernuak, Kodegintzarako Batzorde Nagusiaren bitartez, 1996an hasi zen testu hau prestatzen, eta ataza hori 2000eko maiatzean amaitu zuen, lan luze eta konplexua burutuz. Eztabaida eta hausnarketa sakonak egin ondoren, Justizia Ministerioak 2001eko irailaren 7an aurkeztu zuen testu hori. Sektore ukituen irizpen eta txostenak batu ostean, proiektua 2002ko uztailean sartu zen Gorte Nagusietan, eta horren izapideak 2003an burutu ziren: zehatzago esanda, legea uztailearen 9an onetsi zen (uztailearen 10eko EAO, 164. zk.), eta xedapen jakin batzuk kenduta, 2004ko irailean jarri da indarrean

---

<sup>3</sup> Xedapen horren ariora, Prozedura Zibilaren Legea indarrean jarri eta hurrengo sei hilabeteetan, Gobernuak Konkurtso Legearen inguruko proiektua aurkeztu behar zien Gorte Nagusiei.

orokorrean. Horrenbestez, izapideak ezari-ezarian gauzatu dira, gaiaren konplexutasuna zela eta. Izapidetza horretan, esanguratsua izan da sindikatuen partaidetza, langileen eskubideak behar bezala babesteko, jatorrizko testuetan ez baitzen halakorik ageri. Edozein kasutan ere, lege berriak dakarren aldaketa gogoan izanda, kontu handiaz eta modu xehean arautu dira xedapen gehigarriak, iragankorrak, indargabetzailea zein azkenak, eta legea, esan bezala, orokorrean ez da indarrean jarri 2004ko iraila arte, aurre-rapausoa emeki-emeki emateko.

## **2.- KONKURTSO LEGEAK EKARRITAKO ZENBAIT BERRIKUNTZA**

Konkurtsu Lege berriak aldaketa historikoa ekarri du gai honetan. Berrikuntza positibo ugari ekar daitezke hizpidera, baina, oro har, legegileak arlo hau modernizatzeko egin duen kontuzko apustua azpimarratu behar da; izan ere, gorago aipatu bezala, behar-beharrezkoa zen aurreko legeria eguneratu eta sinplifikatzea, prozedura arina eta gardena ezarrita, eta hori berori erdietsi du araubide berriak.

Zehatzago esanda, hurrengoak dira 22/2003 Legeak ekarritako berrikuntzarik adierazgarrienak:

Lege-batasuna: testu bakarrera bildu dira konkurtsoaren alde substantiboak eta prozesuaren ingurukoak, lehengo arau-sakabanaketa bazter utzita. Aldaketa horri esker, izugarri erraztu da arauon aplikazioa.

Prozedura-batasuna: prozedura bakarraren bidez konpontzen dira kaudimengabezia-arazo guztiak, zorduna enpresario izan zein ez. Prozedura hori, gainera, aurrekoa baino askoz sinpleagoa da (areago, prozedura laburtua ere aurreikusten da, enpresaren neurria eta pasiboa oso handiak ez direnerako).

Oro har, prozedura bakar horrek hiru fase ditu: *fase amankomuna* edo *erkidea* (konkurtsua adierazteko autoa ematen dene-tik, masa aktiboa eta pasiboa zehaztu arte); *hitzarmen-fasea* (testu

berrian onartzen da lehen ezohikoa zen hitzarmen-proposamen aurreratua aurkeztea fase erkidean, beharrezko adostasuna lortuz gero, arinago amaitzeko; ez bada halakorik aurkezten edo zordunak ez badu likidaziorik eskatzen hasieratik, orduan bakarrik irekiko da hitzarmen-fasea); azkenik, *likidazio-fasea* (hitzarmena onetsi edo betetzen ez denean, eta zordunak eskatzen duenean irekitzen dena; ildo horretatik, likidazioa hasieratik eskatu ahal izatea ere berrikuntza positibotzat jo da, hartzekodunei kalte handiagoa eragitea saihets daitekeelako).

Prozedura, bestalde, zeharo malgua da, eta epaileak kasuan kasuko kaudimengabeziaren inguruabarrei egokituko die horren ibilera, datu jakin batzuk gogoan izanda: zordunaren egoera pertsonala nahiz ondare-egoera, masa pasiboaren nondik norakoa, edota kaudimengabezia horretan erantzukizunen bat izan dezaketen pertsonen egoera. Hortaz, abokatuak izugarritzko garrantzia hartzen du prozedura malgu horren barrena, berari dagokiolako epaileari erakustea zein den zinezko egoera kasu bakoitzean, eta zeintzuk hartu beharreko neurriak<sup>4</sup>.

Jurisdikzio berria: merkataritzako epaitegiak. Konkurtsoaren gaineko eskumen eskusiboa merkataritzako epaitegiei esleitu zaie, eta horrek segurtasun juridiko handiagoa ekarriko du. Egin-eginean ere, merkataritzako epaileek konkurtso-gaien inguruko trebakuntza berezia izango dute, eta horrela, ebazpenak arinago lortu ez ezik, kalitate hobekoak izango dira; are gehiago, konkurtso-arauen interpretazioa zentzuz eta modu bateratsuan egingo da. Hori guztia, esan bezala, segurtasun juridikoaren mesederako.

Konkurtso-administrazioaren eraketa: legean kidego organoa eratu da, konkurtsoaz arduratzeko, alegia, masa aktiboa irau-narazi nahiz administratzeko, eta, konkurtsoaren interesak kontuan hartuta, ondarea modu mesedegarrienean likidatzeko. Organo hori hiru kidek osatzen dute: gutxienez bost urtetan jardunean aritu den abokatuak, esperientzia berdina duen kontu-audito-

---

<sup>4</sup> In MAIRATA LAVIÑA, J., «La reforma concursal desde el punto de vista del abogado», *Iuris*, 85 (2004), 24. or.

re, ekonomista edo merkataritzako tituludunak eta hartzekodun batek, hain zuzen ere, kreditu arruntaren zein bermerik gabeko pribilegio orokorra duen kredituaren titularrak; euren zeregin zehatza izango da konkurtsopekoaren ondare-ahalmenetan esku-hartzea edo ahalmenok ordeztzea, konkurtsoa borondatezkoa edo nahitaezkoa izatearen arabera, hurrenez hurren. Hain esanguratsua den ataza horretan (konkursopekoaren ondarea kudeatu eta masaren interesak defendatzea), administratzaileok ordezkari on eta leialaren arretaz jardun behar dute.

Helburu-aldaketa: prozedura berriaren xedea ez da konkurtsopekoaren jokabide irregularra zigortzea, ezpada, ahal den neurrian, enpresa iraunaraztea. Horregatik, konkurtsu-adierazpenak ez du geldiarazten enpresaren ibilera: oro har, ondarea administratzeko ahalmenei eusten zaie (zordunak zein administratzaileek egikaritura), bai eta egindako kontratuen baliozkotasunari ere (horren eretzean, elkarrekiko betebeharrak dakartzaten kontratuetan, konkurtsopekoaren kreditua edo zorra masa pasiboan edo aktiboan sartuko da, kasuan-kasuan; klausula suntsiarazleak ez dira kontuan hartuko, edo, bestela esanda, kontratugileetatik baten inguruko konkurtsu-adierazpena emanaz gero kontratua suntsiarazi edo azkendu behar dela agintzen duten klausulak ez direla jarri ulertuko da; eta segidako traktudun kontratuetan ere, epaileak erabaki dezake kontratua bete behar dela, konkurtsopekoak gauzatu beharreko prestazioak masaren kontura utzita). Ildo berari segiz (lehengo prozeduren kutsu zigitzailea bazter uztea), “errudun” kontzeptua azken sekzioan aipatzen da, eta sekzio hori bi kasutan bakarrik irekitzen da: lehenik, onetsitako hitzarmenean hartzekodun guztien edo talde batekoen kredituen herena baino kita handiago ezarri denean, edo hiru urtetik gorako itxaronaldia; eta, hurrenik, likidazio-fasea zabaltzen denetan. Halakoetan, konkurtsuoa ezustekoa edo erruduna den kalifikatu behar da. Lehenengo kasuan, jarduna artxibatzeke aginduko du epaileak, eta konkurtsuoa erruduntzat jotzen bada, aldiz, epaian ondokoa zehaztuko da: nortzuk diren kalifikazio horrek ukitutako pertsonak, eta nortzuk sopikun edo gaizkideak, eta zeintzuk diren ondoreak eurentzako (epealdi baterako ezgaikuntza, hartzekodun-eskubideen galera, kaltegaleren ordainketa...).

Bestalde, enpresari eustearen helburua erdiesteko, hitzarmen-fasean enpresa horren bideragarritasun-plana aurkeztu behar da, eta fase horretan zein likidazio-fasean enpresa osotasun moduan eskualdatzea gailentzen da, horren jarduerak aurrera egin dezan.

Hartzekodunen arteko berdintasun-printzipioa: printzipio hori aurreko prozeduretan ere aipatzen zen, baina oraingoan, garrantzia handiagoa eman zaio: arean ere, pribilegioak modu nabarian urritu dira, eta, kreditu pribilegiatu nahiz arruntez gain, “mendeko kredituen” kategoria ezarri da lehenengoz (berandu komunikatu direnak, alderdiek eginiko itunaren ondorioz izaera hori dutenak, edota zordunarekin harreman berezia duten pertsonen kredituak); halakoak ordaintzen dira behin kreditu pribilegiatu eta arruntak asetakoan.

Elkarlan-eginbearra konkurtsopekoarentzat: zorduna merkataritzako epaileen nahiz konkurtso-administratzaileen aurrean agertu behar da, hala eskatzen zaionean, kasuan kasuko informazioa nahiz argibideak emateko. Konkurtso-prozedurak hartzekodunei ekarri ahal dien kaltea kontuan hartuta (kredituak urritu edo galtzea), zordunak, gutxienez, laguntza eskaini behar du, prozedura horren ibilera eta emaitzak onenak izan daitezzen. Ez bada horrela gertatzen, eta zordunak ezezkoa ematen baio elkarlanean aritzeari, ulertuko da horren jokabidea doloakoa nahiz erruduna izan daitekeela, eta konkurtso errudunaren kalifikazioa etor daiteke.

Nazioarteko konkurtsoaren arauketa xehea: lehenengo aldiz zehatz mehatz jaso dira gai honen inguruko nazioarteko zuzenbide pribatuaren arauak, “konkurtso nagusia” eta “lurralde-konkurtsoa” bereiztuz, eta, oinarrizko printzipioa *lex fori* delakoa izanik.

### **3.- LEGE HORREN NONDIK NORAKOAK, URTE BAT BERANDUAGO**

Legea indarrean jarri denetik urte bat baino gehiago igarotakoan, zenbait balorazio egin daitezke, berrikuntza horiek guztiak zinezkoak diren edo ez aztertuz.



Egin-eginean ere, legeak aurrerapausoa ekarri du aurreko egoerari begira, duda-izpirik gabe, baina berrikuntza positibo moduan azaldu diren zenbait atal, egiatan ez dira hain positiboak izan, autore batzuen aburuz. Hona hemen, egin diren aipamenak:

Testu bakarrera bildu da aurreko legeria sakabanatua, baina testu bakar horretan zenbait kontzeptu ez dira ondo zehaztu, eta horrek arazoak ekarriko ditu; ulerbidez, “hur-hurreko kaudimengabezia”ren kontzeptua gehiago matizatu beharko litzateke, egungoa zalantzarria delako eta abusuak etor daitezkeelako bide horretatik. Legeak dioenez, *zordunaren hur-hurreko kaudimengabezia gertatzen da, zordun horrek alde aurretik ikusten duenean betebeharrak ezingo dituela garaiz eta behar bezala bete*<sup>5</sup>. On izango litzateke kontzeptu hori gehiago mugatzea, esaterako, presuntzioen bidez, betebeharrak jakin batzuk betetzen ez direnean edo inguruabar bereziak gertatzen direnean (ulerbidez, muga-eguneratutako zorrak berriz finantzatzen badira, ziur-aski likidezirik ezaren arazoren bat egongo da tartean; edota negozio berria abian jartzeko inbertsio handia egin duen enpresarioaren hornitzaile nagusiak greba egiten badu luzaroan, lehengai hornitua oso berezia izanik, enpresario horrek ezingo dio eutsi bere ohiko jarduerari, eta kaudimengabezia etor daiteke...).

2) Konkurtso Eraldaketarako 8/2003 Lege Organikoaren azken xedapenetatik bigarrenak agindu bezala, 2004ko irailaren 1ean merkataritzako epaitegiak jarri dira abian, Konkurtso Legearekin batera. Organo horiek sortzearen helburua bikoitza izan da: batetik, konkurtsoaren epailean batzea jakintzagai juridiko desberdinetako autuen gaineko eskumena, eta, bestetik, arlo honetan espezializazio maila on bat lortzea, epai hobeak eta arinago eman daitezen. Horretarako, dena den, zenbait aurrebaldintza izan behar dira gogoan, eta, badirudi, egun ez direla denak betetzen:

Hasteko, funtsezkoa zen arlo honetan diharduten profesional guztiak gaiaren inguruan trebatzea, legeak goitik behera aldatu baitu aurreko sistema. Abokatu, prokuradore nahiz epaileen lehen-

---

<sup>5</sup> Itzulpena autorearena da.

dabiziko erronka, beraz, euren buruak behar bezala prestatzea izan da, eta esan daiteke, neurri handi batean, hori bete dela, legea indarrean jarri aurretik hainbat eta hainbat ikastaro zein diplomatura monografiko antolatu direlako, eta, oro har, “D egun”erako profesional horiek ibilbidearen irteeran egon direlako, irtetzeko prest.

Bigarrenik, epaitegi hauen benetako espezializazioa ziurtatzeko modurik errazena izango zen konkurtsoaren gaineko eskumen eskusibo eta baztertzaileria esleitzea, eta hori ez da bete-betean lortu: konkurtso-gaiak ez ezik, epaitegiok merkataritzako beste kontu batzuk ere aztertzen dituzte (kontratuen baldintza orokorrak, elkarlehia desleiala, industri-jabetza, nazioko eta nazioarteko garraioa, publizitate-kontratuak...), eta eskumen hain zabalak izateak kalte egin diezaioke aipatu espezializazio horri.

Azkenik, epaitegien zuzkidura jorratzean, badira baliabide pertsonal zein materialen inguruko hainbat kritika: baliabide pertsonalei helduta, epaitegietako langileen antolaketa desberdina da autonomia-erkidegoaren arabera, eta, betiere, eskasa eta behar bezalako prestakuntzarik gabekoa (epailearen prestakuntza punta-puntakoa izan arren, ezer-gutxi lortuko da, horren lan-taldea ez bada behar bezala trebatzen: Bartzelonako 4. epaitegian magistratu den RODRIGUEZ VEGAREN hitz gogorak erabilita, “politikarien kezka bakarra da kasuan kasuko ikastaroa eman dela jakitea, eta, euren kudeaketa justifikatzeko, bereziki aztertu dute zenbat ordu iraun duen ikastaro horrek eta zenbat pertsona joan diren bertara, baina ez dira arduratu ikastaro horren eduki eta emaitzaz”...<sup>6</sup>; baliabide materialen kasuan, ordea, bai epaitegietako instalazioak, bai sistema informatikoak ezin hobeak dira, baina prozeduraren izapideak gauzatzeko sistema horietan ez dira sartu erabili beharreko formulario-tipoak edo ereduak, eta horiek ezari-ezarian sartzen ari dira, erabili ahala.

3) Konkurtso-administrazioaren esparruan, bizpahiru atal ekar daitezke hizpidera. Lehenik, organo horretara sartu nahi duten profesionalek, gutxienez, bost urteko lanbide-esperientzia

---

<sup>6</sup> In RODRÍGUEZ VEGA, L., «La situación real de los juzgados mercantiles», *Iuris*, 98 (2005), 50. or.

behar dute, baina abokatuen kasuan, esaterako, onar daiteke gutxieneko epe hori betetzen ez duen abokatuari epai-karreraren epaile edo magistratu moduan emandako urteak ere zenbatzea (batik bat epaile hori jurisdikzio zibilean edo merkataritzakoan aritu denean)? Batzuen ustez, halakoetan ez da errespetatzen legearen hitzez-hitzez kotasuna, eta, ondorenez, erantzuna ezezkoa izan behar da; beste batzuen iritzirako, ostera, baiezko erantzuna da bidezkoena, epaile ohia eta abokatu den pertsona horren jakituria nahiz esperientzia askoz zabalagoak izango direlako. Bigarrenik, Legeak *konkurto-gaietan trebatzeko konpromisoa*<sup>7</sup> eskatzen die profesional horiei, eta, gorago aipatu bezala, badirudi prozeduran goi-erantzukizuna dutenek bete dutela konpromiso hori; hala ere, legeak ez du zehaztu nola egiazta daitekeen inguruabar hori. Ekonomisten Kontseilu Nagusiak, berbarako, organo tekniko berezia eratu du (Auzitegiko Ekonomisten Erregistroa), profesional horiek epaitegietan gauzatzen dituzten lanen kalitatea hobetzeko, judizio-autuen inguruko prestakuntza berezia emanaz. Ildo horri ekinez, antzeko zerbait ezar daiteke konkurtso-administrazioan parte hartzen duten profesionalen prestakuntza bermatzeko, “konpromiso” hori euren esku uzten bada, irregularitateak egon daitezkeelako. Eta hirugarrenik, organo horretako kideek arretaz bete behar dute euren kargua, baina ezartzen zaien erantzukizuna hain da gogorra (merkataritzako sozietateetako administratzaileek dutenaren antzekoa), konkurtso-administrazioan sartzeko baldintza subjektiboak betetzen dituztenek ez dutela nahi izango halako zereginetan sartu, badaezpada.

4) Helburu-aldaketa: aurreko atalean aipatu bezala, legearen helburua ez da zorduna zigortzea, krisialdian dagoen enpresari eustea baizik. Horren inguruan ere, gauza pare bat esan daiteke. Enpresa iraunarazteari dagokionez, bideragarritasun-planen arauketa urria eta askieza da, eta sakonago arautzen da, konparaziorako, likidazioa. Bestalde, bazter utzi nahi da aurreko prozeduren kutsu zigortzailea, baina konkurtsoa kalifikatzean, dolo edo erru larriaren aldeko presuntzioak ezarri dira kasu batzuetan, eta kontzeptu horiek zigor arlokoak dira bete-betean. Gainera, badirudi

---

<sup>7</sup> Itzulpena autorearena da.

presuntzio horien aldeko joera dagoela, frogaren zama alderantzuta baita, eta zenbait autoreren ustetan, hori bidezkoa izan daiteke tributu-arloan, baina ez konkurtsoan<sup>8</sup>.

5) Azkenez, estatistikara jotzeko arinegi izan daitekeen arren, hasierako datuek adierazten dute emaitzak ez datozela bat aurreikuspenekin: lehenengo urte honetan, 678 espediente baino ez dira aurkeztu, eta erdia baino gehiago, gainera, lau autonomia-erkidegoetan. Areak ere, konkurtso-arloko *ranking* honetan Kataluinak dauka lehenengo postua (%ko 21,4), eta jarraian, Madril (13,2), Euskadi (11) eta Valentzia (10,7) ageri dira; atzeko postuetan, aitzitik, Estremadura (0,7), Kantabria (0,9) eta Errioxa (1,1) dauzkagu<sup>9</sup>. Ikusi beharko da zein den joera hemendik aurrera.

#### **4.- LABUR-ZURREAN**

Legeak, edozein kasutan ere, harrera oso ona izan du sektore ukitu desberdinetan (enpresa-mundua, epai-boterea, abokatuak...), helburu nagusia erraz erdietsi delako: aurreko legeria sakabanatu eta zaharkitua hobetzea. Atalen bat edo beste berriz aztertu eta aldatu beharko da, ezbairik gabe (kontzeptu batzuen inguruko ñabardurak sartuta, epaitegiak hobeto zuzkituz...), baina gorabeherak gorabehera, eta kritikak kritika, besapean sekulako ogia ekarri digun jaioberria maitasunez eta tentuz zaindu beharko da, behar bezala haztea nahi badugu.

#### **5.- BIBLIOGRAFIA**

—ALEJANDRE GARCÍA, J. A., *La quiebra en el Derecho histórico español anterior a la Codificación*, Sevilla, 1970.

—ASKOREN ARTEAN, *Comentarios a la Legislación Concursal*, Dykinson, Madril, 2004, I eta II. liburukiak.

—ASKOREN ARTEAN, «Nueva Ley Concursal, la hora de las valoraciones», *Iuris*, 76 (2003), 17.etik 22.erako orr.

---

<sup>8</sup> In CRUZ BÉRTOLO, J. M. DE LA, «Nueva Ley Concursal, la hora de las valoraciones», *Iuris*, 76 (2003), 20. or.

<sup>9</sup> In [www.foronoticias.com](http://www.foronoticias.com)

—CORTÉS DOMÍNGUEZ, V., *Aspectos de la nueva Ley Concursal: concursos, créditos, administradores, jueces*, Reus, Madril, 2004.

—DAMIÁN MORENO, J., *La nueva Ley Concursal: criterios informadores y principios procesales de la nueva legislación concursal*, Instituto Vasco de Derecho procesal, Donostia, 2004.

—GARCÍA VILLAVERDE, R. (zuz.), *Estudios sobre el anteproyecto de Ley Concursal de 2001*, Universidad Rey Juan Carlos, Madril, 2002.

—GOMÉZ MARTÍN, F., *Ley Concursal e insolvencias punibles*, Comares, Granada, 2004.

—*Legislación sobre enjuiciamiento civil*, Civitas, Madril, 2001.

—MAIRATA LAVIÑA, J., «La reforma concursal desde el punto de vista del abogado», *Iuris*, 85 (2004), 21.etik 28.erako orr.

—RODRÍGUEZ VEGA, L., «La situación real de los juzgados mercantiles», *Iuris*, 98 (2005), 49 eta 50. orr.

—URÍA, R., *Merkataritzako zuzenbidea*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1995.

—VÁZQUEZ IRUZUBIETA, C., *Comentarios a la Ley Concursal, Ley 22/2003, de 9 de julio*. Dijusa, Madril, 2003.

**Eba Gaminde Egia**